



PRENTSA OHARRA

AMURRIKO UDALAK 17 MILIOI EUROTIK GORAKOA IZANGO DEN 2022RAKO UDAL AURREKONTUA ONARTU DU

Amurrión, 2022ko urtarrilaren 28an. Atzo arratsaldean Amurrioko Udalak egindako osoko bilkurak argi berdea eman dio Gobernu Taldeak 2022rako aurkeztutako 17.456.598 euroko aurrekontu-proiektuari, EAJ-PNVren eta PSE-EEren aldeko botoekin, Orain Amurrioren abstentzioarekin eta EH Bilduren kontrako botoarekin.

“Gaur onartutako aurrekontuak pertsonak jartzen ditu udal-politiken erdian. Aurrekontuaren % 53 Herritarrei zuzenduta egongo da, amurriotarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuetarako, eta pertsonak jarriko dira udal-politiken erdian, zaintzak itsasargizat eta berdintasuna Udalaren ardatz egituratzailatzat hartuta”, azaldu du Txerra Molinuevo Amurrioko alkateak.

Egungo testuinguru sozioekonomikoak markatu du udal-kontuen gauzatzea. Kontu horiek pertsona ahulenen ondoan egotea, kalitatezko zerbitzu publikoei eustea eta udaletako enplegu-politikak bultzatzea dute helburu. Gizarte arloko lehentasunak funtsezko ardatza dira Udalarentzat, eta, horrela familiei zuzendutako 330.254 euroko partida jasotzen da, Amurrioko familia bakar bat ere atzean gera ez dadin. Gazteak beste sektore garrantzitsu bat dira Udalarentzat, eta, ondorioz, 30.000 euroko partida bideratu da alokairurako laguntzetarako.

Susperraldi sozioekonomikoa, neurri handian, enplegua suspertzetik dator. Horregatik, enplegurako partida 74.597 eurotan handituko da, 514.606 eurora iritsi arte, azken 10 urteetako enplegu-partidarik handiena, udal, gazte eta eskualdeko enplegu-planak sustatzen jarraitzeko helburuarekin.

Kultura bultzatzea balio segurua eta erreferenteetako bat izango da Udalarentzat. 2022an, Amurriok bere lehen Kultur Plan Estrategikotik eratorritako hainbat ekintza izango ditu. Gainera, euskararen erabilera bultzatzen jarraituko da, aurten, martxoaren 31n Amurriotik abiatuko den Korrikari udalerriak emandako babesaren bitartez, horretarako partida handituz. Bestalde, herrian egiten diren jarduera askoren ardatza den udalerriko elkarte-sareak aurrekontuaren % 4,6 jasoko du, hau da, 806.872 euro.

Inbertsioak

Inbertsioen kapitulua aurrekontuaren % 16,62koa da, hau da, 2.902.535 €. Besteak beste, jarduketa hauek egingo dira: epaitegiaren inguruan aparkalekua eraikitzea, Aiara eta Frontoi kaleak oinezkoentzat prestatzea, Mendiko eta Zabaleko ikastetxe publikoetan eta Haurreskoletan inbertitzea, kros zirkuitua egokitzea, edo tirolina bat jartzea, skate park-aren eraikuntzarekin batera udalerrian aisialdirako gunek berriak eskaintzeko. “Aurrekontuak inbertsio atal garrantzitsua hartuko du udalerriko proiektu estrategikoetan aurrera egiten jarraitzeko, Amurrio eskuragarriago eta atsegina gorantz aurrera egiteko”, azaldu du Amurrioko Udaleko alkateak.

Horrez gain, 168.867 euro bideratuko dira udalerriko Administrazio Batzarretara, eta 340.000 euro, berriz, herritarren zuzeneko partaidetzaren bidez erabakitako ekintzetara; 100.000 euro, auzoetako batzarretatik sortutako jarduketetara; eta, iaz aurrekontu parte-hartzaileen kanpaina berria hasi ondoren, 240.000 euro bideratuko dira proiektu horretatik ateratzen diren ekintzak gauzatzera.

2022rako aurrekontua egitea iazko kontuak onartzean hartutako konpromisoak betetzeari lotuta egon da. “2021eko martxoan erabaki zen moduan, aurrekontuaren Udalean ordezkariak duten talde politiko guztiek hartu dute parte zirriborroa egiteko lanean, eta hilabeteetako lanaren ondoren, kontuak urtarrilean onartuko dira”, adierazi du Molinuevok.



Informazio gehiago:

Maite González Bilbao

666 114 705

prentsa@amurrio.org